



**ZUBIETAKO UDALA**  
(Nafarroa)  
31746

Francisco Michelena Celayeta.  
Jose Maria Michelena Erasun.  
Imanol Baleztena Elizalde.  
Leire Bazterrika Loiarde.

2018ko ekainaren 27an, 8:00etan, Zubietako Herriko Etxean elkartzen dira ohiz kanpoko biltzarrean ondoan aipatzen diren zinegotziak, legeak eskatzen duen bezala deitu eta gero. Ernesto Dominguez Olea —Alkatea— da bilkurako burua eta idazkaria, Miguel Jose Belarra Tellechea. Gai Zerrendako gai hau aztertu da:

## **1. MARTINEKOBORDAKO BIDEA.**

2017ko urriaren 30eko Osoko Bilkuran onetsi ziren “*Martinekobordako* bidearen moldaketa” izeneko proiektua eta inbertsioaren finantza plana, 8.625,17 euro —gehi BEZa— delarik obraren aurrekontua. Toki Administrazioiko zuzendari nagusiak zehaztu zuen finantza-ekarpena ekainaren 4ko 302/2018 Ebazpenean (2017-2019 aldirako Toki Inbertsioen Plana).

Obra esleitzea dagokio eta Kontratu publikoei buruzko 2/2018 Foru Legearen 81.artikuluaren arabera zenbateko txikiko kontratua da eta izapide hauek egin behar dira: aurretiaz kreditua erreserbatu, aplikatu beharreko aurrekontu eta kontabilitate araudiaren arabera, eta faktura aurkeztu. Excavaciones Mikel Ubiria SL-ek aurkeztu du 8.575,17 euroko eskaintza (gehi BEZa) obra egiteko. Aipatutakoak kontuan izanda, aho batez erabakitzen da:

1. Obra egiteko gastua baimentzea eta dagokion kreditua erreserbatzea 2018ko aurrekontuan: 10.375,95 euro arte exekuzio-materiala egiteko, 1-454-62100 kontu-saila.

2. “*Martinekobordako* bidearen moldaketa” izeneko proiektuan dauden obrak esleitzea EXCAVACIONES MIKEL UBIRIA SL enpresari, B31738131 IFK, zortzi mila bostehun eta hirurogeita hamabost euro eta hamazazpi zentimoan (8.575,17 €), gehi BEZa —% 0,579ko beherapena—.

3. Kontratua sinatzeko ahalmena ematea alkateari. Besteak beste, klausula hauek sartuko dira kontratuan: obrak egiteko epea, 2 aste, hasiera-aktako datatik kontatzen hasita; 18/2016 Foru Legearen 20. artikuluko gizarte-klausula.

4. M.M.O.ri ematea obrako zuzendaritza teknikoaren ardura. 345,01 eurotan (gehi BEZa) —%0ko diferentzia aurrekontuarekin—.

5. Erabaki hau jakinaratzea esleipendunari eta obrako zuzendariari.

## **2. 2017KO KONTUAK.**



## ZUBIETAKO UDALA

(Nafarroa)  
31746

Udalak aldeko txostena eman zuela ikusirik eta espedientea jendaurrean egon den epean ez dela erreklamaziorik aurkeztu kontuan hartuz, 2/1995 Foru Legearen 242. artikuluaekin bat etorriz, aho batez onesten dira 2017ko kontuak.

Bertzalde, Zubietako Udalak, 2018ko maiatzaren 10ean egin osoko bilkuran, erabaki zuen onestea ekonomia eta finantza plana xede honekin: 2018ko eta 2019ko ekitaldietan betetzea Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzko 2/2012 Lege Organikoan ezarritako gastuen gaineko araua, ustez 2017ko ekitaldian bete ez zelako. Kalkulua oker egin zela ikusirik eta araua bete dela kontuan izanda, aho batez erabakitzen da akordioa bertan behera uztea.

Eta bertzerik ezean, 08:15a denean, alkate jaunak bilera akitutzat eman du, eta nik, neronek, idazkaria naizenez, ziurtatzen dut.